

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udaletxean Herritarren Arreta eta Turismo bulegoak hartzea ahalbidetuko duten obrei berrekingo zaie

Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako beste gai batzuk: Bera Bera berrurbanizatzea – II. Fasea, Galtzaden konponketak, Vicomtech eraikina, Euskara Plana 2023-2027, Bertxolari Txirrita parkea berritzea, Harria parkearen estalkia, SPEIS ibilgailua

Tokiko Gobernu Batzarrak onarpena eman dio udaletxeko beheko solairua eraberritzeko obren kontratuaren bigarren aldaketarako espedienteari, bertan Turismo Arretarako Bulegoa gaitzeko aurreikusten zuena. Aldaketa lokalaren barruko banaketan egingo diren doikuntzek eragin dute, eta honi esker eraikinak Herritarren Arretarako bulego bat ere izango du (Udalinfo).

Eneko Goia alkateak gogorarazi duenez, Turismo bulegoa egokitzeko lanak burutzen ari zirela, Udal Gobernuak beharrezkotzat jo zuen proiektua birplanteatzea, "udaletxeak, erreferentziatzko eraikin gisa, herritarrei arreta zuzena emateko postuak berreskura zitzaizkion, eta, beraz, espazioak birbanatzeari ekin zitzaion".

Beharrezko tramiteak egin ondoren, horien artean datozen asteetan behin betiko onartuko den aldaketa hau, obrari laster berrekingo zaio. Horrekin, Udalaren eraikineko beheko solairuan herritarrei arreta emateko 23 postutarako gunek bat eta itxaroteko gunek bat egingo dira, baita arreta turistikorako eremu bat ere. Berregituraketa horren ondorioz, aurrekontua 117.866 euro handituko da.

Bera Bera berrurbanizatzea – II. Fasea

Tokiko Gobernu Batzarrak Bera Bera II. Fasea berrurbanizatzeko proiektuaren obrak kontratatzeke espedientea onartu du. Egin beharreko lana Hegaztien pasealekuko bi zatiren berrurbanizazioa da, lizitazioaren aurrekontua 1.642.187 eurokoa da eta gauzatzeko epea 7 hilabetekoa.

Galtzadaren konponketak

Tokiko Gobernu Batzarrak 2023ko galtzadako zoladurak konpontzeko proiektuko obrak kontratatzeke espedientea onartu du, 1.034.836 euroko lizitazio-aurrekontuarekin eta 36 asteko egikaritze-eparekin.

Vicomtech eraikina

Tokiko Gobernu Batzarrak Eskuzaitzetako E1.E. lurzatian Vicomtech eraikina eraikitzeke lizentzia ematea onartu du. Horrela, zentro teknologiko berria MUBIL Mugikortasun Adimendun eta Jasangarriaren zentroaren parte izatera pasako da, Donostiak teknologian eta berrikuntzan duen potentziala indartuz.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Euskara Plana 2023-2027

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du Donostiako Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko VII. Plana (2023-2027 aldirako, baina indarrean egongo da hurrengo plana onartu arte). Halaber, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak (denboran irauteko tresna dira, eta planaren iraupenak ez du haien indarraldia baldintzatuko), eta Udaleko langileak euskara ikastaroetara joateko baldintzak (indarrean 2027-2028 ikastertera arte) ere onartu ditu.

Bertxolari Txirrita parkea berritzea

Tokiko Gobernu Batzarrak Electro Talleres Zarauz, SA enpresari esleitu dio Txirrita Bertsolariko haur-parkea berritzeko kontratua, 47.521 euroko esleipen-prezioarekin eta 12 asteko egikaritze-epearekin.

Kontratuak barne hartzen ditu joko berrien hornidura, garraioa eta muntaketa, "Udala" modeloko kartela eta espezialistek egindako segurtasun-zoladura, baita lanak egiteko behar den edozein kontzeptu ere. Kontratua ezin izango da hasi jolas-eremua estaltzeko proiektuari dagozkion obrak amaitu baino lehen.

Harria parkearen estalkia

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du Altzako Harria parkean haurrentzako jolasetan ehun-estalkia jartzeko proiektuaren obrak kontratatzeko espedientea. Lizitazioaren aurrekontua 277.460 eurokoa da eta gauzatzeko epea 3 hilabetekoa.

Jokoak euritik behar bezala babesten direla ziurtatzeko, joko-eremua baino handiagoa den ehun-estalkia planteatzen da. Gune estaliak 180 m²-ko (18x10 m) azalera izango du, eta mugak perimetroan dagoen zuhaitziak baldintzatuko ditu. Era berean, joko-eremuan dagoen kautxuzko zoladura berrituko da, gaur egun oso hondatuta baitago. Bestalde, argiak gehituko dira ehunezko estalki berriaren azpian, jolas-eremua behar bezala argizatzen dela bermatzeko.

SPEIS ibilgailua

Tokiko Gobernu Batzarrak Donostiako SPEISerako 3.000 litroko 4x4 landa-autobonba astunaren hornidura kontratatzeko espedientea onartu du, 500.000 euroko aurrekontuarekin eta 6 hilabeteko entrega-epearekin.

Donostia, 2024ko maiatzaren 7a